

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskala aldatzea. Behin-betiko onarpena. (Espediente: 2021/20/S893)

Zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskala aldatzea, hasierako erabakia, 2021eko ekainaren 28 egunean Udaltzako Osoko Bilkuran hartutakoa, jendaurrean ikusgai egoteko epea igaro ostean eta horren barruan alegazio bat (1) aurkeztu da.

Udaltzaren Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 27an, egindako alegazioa ebatzi zuen, eta behin betiko onartu zuen zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskala aldatzea.

Aipatutako 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan eta 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, behin-betiko bihurtu den erabakia oso-osorik argitaratu da eta indarrean sartuko dira azken argitalpen hori gertatu ondoren:

“Gaia: Zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskala aldatzea. Behin betiko onarpena

Kultura, Kirolak eta Jaiak Zerbitzuak Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuari jakinarazi dio zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7. ordenantza fiskala aldatzeko beharra, kirol instalazioen gaineko tasan 2021eko ekitaldirako onura fiskala sartzeko helburuarekin, joan den urtean COVID-19 pandemiak eragindako osasun egoeraren ondoriozko murrizketen eraginpean egon ziren erabiltzaileentzat.

Ikusi da Kultura, Kirolak eta Jaiak Zerbitzuko arduradunaren txostena, 2021eko maiatzaren 26koa.

Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuko goi-mailako teknikariaren 2021eko maiatzaren 27ko txostena ikusi da.

Kontu-hartzaileak 2021eko ekainaren 1ean egindako txostena ikusi da.

Udaltzaren Osoko Bilkurak, 2021ko ekainaren 28an, zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskalaren hasierako aldaketa onartzea erabaki zuen.

Jendurreko erakustaldian, erreklamazio/alegazioen ondorioetarako, idazki bat aurkeztu da, 2021eko ekainaren 28ko Osoko Bilkuraren erabaki horri alegazioa aurkezteko. Honako hau jarri du alegazio hori:

- Pacivi Glocal Consulting SL, Alvaro Barrios Medinaren izenean eta ordezkari gisa (sarre-erregistroa: 11359, 2021eko abuztuaren 17koa).

Udal kudeaketa arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuko goi-mailako teknikariak, 2021eko irailaren 10ean, txostena egin zuen, eta adierazi zuen, bere iritziz, aurkeztutako alegazioak ezetsi egin beharke lirakekeela, aipatutako txostenean adierazitako arrazoientzat.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta alde aurretik Osoko Bilkurako gaien eta mozioen Batzorde Informatibo Iraunkor Orokorraren irizpena izanda, Osoko Bilkurak hau

EBATZI DU

Lehenengoa. Oso-osorik ezestea zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskalaren aldatzeko hasierako onespeneren erabakiaren aurkako alegazioak, honako hau aurkeztutakoa:

- Pacivi Glocal Consulting SL, Alvaro Barrios Medinaren izenean eta ordezkari gisa (sarrera-erregistroa: 11359, 2021eko abuztuaren 17koa).

Ebazpen honek udal kudeaketa arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuaren 2021eko irailaren 10eko txostena eragin du, eta ebazpen honen jakinarazpenarekin batera bidaliko zaio interesdunari txosten horren kopia.

Bigarrena. Behin betikoan, 7. ordenantzaren aldaketa onartzea, zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen, ondoren adierazten den xehetasunarekin:

Honako aldaketa hau ezartzen da ordenantza honen eranskinetako atal honetan:

XI. UDALAREN KIROL-INSTALAZIOAK ERABILTZEA

Hobariak eta salbuespenak: Beste paragrafo bat, 10) paragrafoa, gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“10) 2020. urtean kirol-instalazioetako abonatu gisa urteko kuota ordaindu duten pertsonak tasa berean tarifaren ehuneko 100eko hobaria izango dute 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko aldian.”

Hirugarrena. Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko erabaki hau eta ordenantzaren edo horien aldaketan testu osoa ALHAOn argitaratu dira, eta ez da indarrean jarriko argitaratu arte.”

Zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskala aldatzea, behin-betiko erabakiaren kontra, interesdunek administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa tartegarri ahal izango dute dagokion jurisdikziopeko Salan, ALHAOn erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi (2) hilabeteko epean.

Laudio, 2021eko irailaren 28a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE